


Aintziñako fotografixak



Orain dela 90 bat urteko Oñati.

Kolejialde, Estaziñua eta Ibarra

Parrokixako kanpantoretik atarata egongo dan fotografixa honek berrogei bat urte izango ditu. Unibersidadia da, itxura batian, aldaketa gutxien euki dauena; egixa da barrukaldetik obra haundixak egon dirala azkenengo hamarkada honeittan, baiña kanpotik ez tala larregi kanbixau emuten dau. Dana dala, zubi ingurua eta fatxada nagusixaren aurrekaldian daguen plazuelia desbardin dagoz gaur egun: adibidez, orain garai bateko umezaiñen banku luze eta lustrusua falta da. Eskumakaldian agiri dan teillatu eta etxe-ertzak beste dozena bat urte iraun eben: antxiñako Ospitalarena zan eta Instituto barrixa egitteko bota zan.

Gehixen aldatu dana, jakiña, atzeko partia da. Estaziñoko etxia zutik dago orainddiok, posta-etxe bihurtuta, baiña trenbideak eta gaiñontzeko eraikuntzok Ibarra jolaslekua moldaitteko desegin eta lurreratu zittuain. Barren-barrenian Galdoseneko zerria ikusi leike, eta aurreratxuago piletako fabrikia (Tximist sasoi haretan) jaso barri: tartian geldiketan dan ortua ospitalekua zan, eta orain estaziño aurrian parketxua daguen moduan, orduan akaziaz betetako zelaixa eguen. Olaitturri aldian eztago orainddiok zubi-arrastorik, Lizaur kalia egitten sei bat urte beranduago hasiko ziran eta.

J.E.

Argazkixa Joxe Fernadzek eskuratu dosku.